

**2021-2023 TARTERAKO UNIBERTSITATE SISTEMA
ESPAINIARRA BIRKUALIFIKATZEKO LAGUNTZEN
BIGARREN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK-NEXT
GENERATION EU-K FINANTZATUTA
(UNIBERTSITATEKO IRAKASLE FUNTZIONARIO ETA
KONTRATATUAK BIRKUALIFIKATZEKO)**

**Behin-behineko ebazpena berriak ukoengatik eta
errakuntzen zuzenketengatik**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

**2021-2023 TARTERAKO UNIBERTSITATE SISTEMA ESPAINIARRA BIRKUALIFIKATZEKO
LAGUNTZEN BIGARREN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAK-NEXT GENERATION EU-K
FINANTZATUTA
(UNIBERTSITATEKO IRAKASLE FUNTZIONARIO ETA KONTRATATUAK
BIRKUALIFIKATZEKO)**

2022ko uztailaren 5ean ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, Batzorde Ebaluatzaileak, 2022ko irailaren 12an egindako bileraren ondoren, esleipen proposamena egin zuen, behin behineko ebazpena emateko eta argitaratzeko.

Ondorioz, IAEk erabaki du emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena bere web atarian argitaratzeko agintzea eta ebazpena 2022ko urtarrilaren 4an argitaratu da.

Hala ere, alde batetik, errakuntzak antzeman dira azken puntuazioetan eta bestetik, behin-behineko emate erabakia zuten hautagaien ukoak gertatu dira. Bi arrazoiengatik, egokia da eman, itxaron-zerrenda eta ezetsitako eskarien zerrenda berriz ordenatzea.

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ ONARTUTA DITUZTENEK 2022ko urriaren 7tik 21era arte (biak barne) dute, kontratua onartu edo bertan behera uzteko, mezu elektronikoko bat helbide honetara bidalita: movilidad.dgi@ehu.es

Behin epe hori igarotakoan, ez bada alegaziorik edo bertan behera uzteko mezurik aurkeztu, behin-behineko ebazpenaren edukia onartu dela ulertuko da.

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ UKATUTA DITUZTENEK, aurrean aipatutako 10 eguneko epe berean alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte: **2022ko urriaren 7tik 21era arte (biak barne).**

Epe horren barruan, hautagaiek euren eskaerari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahal izango dute movilidad.dgi@ehu.es helbidera idatzita.

Zuzenketak eta alegazioak bide hauetatik aurkeztu ahalko dira:

Euskarri fisikoan:

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona: *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala), Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa, z/g, 48940 – Leioa (Bizkaia).*

Euskarri elektronikoan:

- **Dokumentazioa erregistro elektronikoan** aurkeztuz: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Erregistro elektronikoa erabiliz gero, "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzeko du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "MOVILIDAD".
- **Dokumentazioa posta elektronikoz igorri:** movilidad.dgi@ehu.eus. Bide hau erabiltzen bada, interesdunak erantzun automatikoa jasoko du. Erantzun automatikoa hori dokumentazioa epe barruan eta era egokian aurkeztu izanaren ziurtagiri gisa gorde beharko du.

Aipatutako aurkezpen-bide guztiek baliogarritasun bera dute. Beraz, interesdunei bakar bat erabiltzeko eskaera luzatzen zaie.

Aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu Ikerketa Batzordeak, egingo duen hurrengo bileran.

OHAR GARRANTZITSUA:

Esleipena bakarrik gauzatu ahal izango da baldin eta eskatzailearen ardurak UPV/EHU eta mugikortasuna bera bateragarriak badira mugikortasunaren garaian.

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoa bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: movilidad.dgi@ehu.eus

Leioan, 2022ko urriaren 6an.

INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

KODEA	NAN	ZIENTZIA ARLOA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA
RECUALI22/01	14264049R	Gizarte eta Lege Zientziak	85,2	EMANDAKOA
RECUALI22/02	16056313J	Gizarte eta Lege Zientziak	88,4	EMANDAKOA
RECUALI22/03	16067505G	Ingeniaritza eta Arkitektura	91,6	EMANDAKOA
RECUALI22/06	44344236Y	Ingeniaritza eta Arkitektura	95,6	Borondatezko Ukoa
RECUALI22/07	45678410L	Arteak eta Giza Zientziak	93,6	EMANDAKOA
RECUALI22/05	72682550C	Arteak eta Giza Zientziak	90,8	EMANDAKOA